

Artezkaritza-kontseilua eta zaintza batzordearen berritzea

Bazkide agurgarria:

Artezkaritza-Kontseiluak, bertako eta Zaintza Batzordeko partaideen berritze prozesua hasiko duela jakinarazi nahi dizu. Prozesu honen helburua familien parte hartzea bermatzea da gurasoon ordezkari izango diren kide berrien aukeraketan. AKn gauden guraso ordezkariok Ikastolako familia guztiak ordezkatzeko ditugu eta bertan eztabaidatu eta erabakitzen diren gaitara familien ahotsa eraman behar dugu. Garrantzitsua da organo horretan familien kezka, postura eta ikuspuntu anitzak mahairatzea. Zaintza batzordearen zeregina, Batzar Orokorrari aurkeztu baino lehen, urteko kontuak ikuskatu eta horiei buruz eta soberakinak banatzeko eta galerak egozteko proposamenari buruzko txostena egitea da, kooperatibaren urteko kontuak auditatzen direnean izan ezik.



Hurrengo **azaroaren 16an** egingo den Batzar Nagusian **Artezkaritza Batzordeko 3 kide** eta **Zaintza Batzordeko beste 3 kide ordezkatu** dira. Hori dela eta, Artezkaritza Kontseiluko edo Zaintza Batzordeko kide izatera animatu nahi zaituztegu, urriaren 10a baino lehen artezkaritza@udarregi.eus e-postara idatziz.

Informazio gehiago beharko bazenu, idatzi lasai artezkaritza@udarregi.eus helbidera.

Aldez aurretik eskerrak emanez.

Artezkaritza Kontseilua

Kilometroak 2023

Urriaren 1ean Orereta-Erreterian ospatuko da aurtengo Kilometroak festa.

Kilometroak eguna hitzordu bikaina izateko, boluntarioak behar dituzte. Sartu kilometroak.eus webgunean eta eman izena!



"Hezkuntzak euskara gehiago behar du" sinadura bilketa

Euskalgintzaren Kontseiluak sinadura kanpaina bat abiatu du **Hezkuntzak euskara gehiago behar du** leloaren pean, eta Eusko Legebiltzarrean eztabaidaren azken fasean sartu den Hezkuntza Legeari begira. Kanpaina hau aste honetan abiatu da Gasteizen egindako ekitaldi batekin, eta urriaren 15a bitarte luzatuko da.



Ikastolen Elkartearen Artezkaritza Kontseiluak, bere azkeneko bileran, **kanpaina honekin bat egitea erabaki zuen eta berau ikastoletan zabaltzea eta ikastolak kanpainen parte hartzera animatzea.**

Sinadura hauen bidez Eusko Legebiltzarreko kideei EAEko Hezkuntza Lege berriak honako hiru puntuak berriaz jaso ditzala eskatu nahi zaie:

- Euskara ikas- eta irakats-hizkuntza izango duen eredu orokortu inklusiboa.
- Euskal kultura ardatz izango duen euskal curriculumak.
- Hezkuntza ez-arautua osorik euskaraz garatzea.

Sinadura bilketa **2023ko irailaren 12tik urriaren 15era** luzatuko da, eta 16 urtetik gorako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarrek sinatu ahal izango dute eskaria, bi modutara: presentzialki, sinatzeko jarriko diren mahaietan (gure kasuan ikastola bakoitzak jarriko duen/dituen mahaietan), edo <https://euskaragehiago.eus/> webgunean online. Pertsona bakoitzak behin bakarrik sinatu ahal izango du eskaria, izen-abizenak eta nortasun agiria adieraziz. [Informazio gehiago...](#)

Ikasketa-beka

2023/2024 ikasturterako Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen beka eskatzeko epea **irailaren 30era** arte irekita egongo da.

Informazio guztia [hemen klikatuta](#) ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagorako idazkaritzarekin jarri harremanetan.

Era berean, Udarregi Ikastolak, irakaskuntzaren finantzazioari laguntzeko asmoz, beka-sistema propioa eskainiko die bere bazkideei. Beka-sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntzaren zenbatekoaren inguruko xehetasunak [hemen klikatuz](#) irakur daitezke.



Jangela-zerbitzuaren oharrak

- ❖ **Jangela batzordea:** bertan jangela-zerbitzuaren eskaintzaz, funtzionamenduaz, antolamenduaz eta menuez hitz egiten da, besteak beste. Funtzionamenduaren jarraipena egiteko, bi hilabetez behin ordubeteko bilerak egiten dira. Bertan parte hartu nahiko bazenu, idazkaritzara deitu edo gelako tutoreari adierazi.



- ❖ **Iraileko menua:** zerbitzua lehenengo egunetik eskaintzen da eta hilabete honetan emango den menua honakoa izango da:
 - o 0 – 3 urte. [Haur eskolako menua](#)
 - o 3 – 16 urte. [Menu arrunta](#)
 - o 3 – 16 urte. [Intolerantziadun menua](#)

Jantoki-zerbitzua bi txandatan eskaintzen da:

- **Lehen txanda:** 12:30etik 13:30era. HH 3., 4. eta 5. Mailako, LH 1. eta 2. Mailako eta DBH-ko ikasleentzat. Ondoren, zaintza zerbitzua eskaintzen da.
- **Bigarren txanda :** 13:30etik 14: 30era. LH 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzat. Aurretik zaintza zerbitzua dago. Txanda honetako ikasleek 12:30etik 13:30era jantoki-zerbitzutik irten ahal izango dute tutorearen idatzizko baimenarekin.
- ❖ **Izen-ematea:** norbaitek jangela zerbitzua erabili behar izanez gero edo izena emanda egonik ez bada zerbitzua behar, usurbil@ikastola.eus helbide elektronikora mezua bidaliz jakinaraziko du gutxienez bezperan 13:00 aurretik.

Telefono mugikorra eta smartwatch arautegia ikastolan

Azken urteetan ikasleak ikastolara ekartzen dituzten Smartwatch edo erloju adimenduekin, egunerokotasunean arazoak izaten ari gara. Arazo hauek, aipaturiko gailu hauek dituzten jolas, kamara eta aplikazio desberdinek sortzen dizkigute.

Bestalde gure ikasleek adina kontuan hartuta, ulergarria da gailu hauen baliabide ugariak ongi kudeatzeko gai ez izatea.

Ondorioz, gai honekin loturik ikastolak duen arautegia bidaltzen dizuegu.



- Debekatuta dago telefono mugikor eta smartwatch-en erabilpena ikastolako ordutegian, jangela eta zaintza barne.
- Gailua ezingo da soinean eraman, motxilan gordeta eraman beharko dute.
- Ikastola ordutan itzalita edukiko da.
- Irteeretan: Egun edo gaua pasatzeko irteeretan, telefono edo smartwatchen erabilpena ikastolan arautzen den berbera da.
- Arau hau hautsiz gero (ikastolan edo irteeretan), lehenengo aldian ikasleari gailua kendu egingo zaio, gurasoei deitu eta gailua gurasoei itzuliko zaie.

Egutegia

Gogorazten da, datorren astelehenean, irailak 26, HH eta LH-ko klaseak goiz eta arratsaldez hasiko direla, 9:00 – 12:30 eta 14:30 – 16:30 ordutegian. Aldiz, DBH-ko klaseak jarraiak izango dira irailaren 29ra arte.



Eskola kirola

Gipuzkoako Eskola Kiroleko **ESKUORRIA** ([esteka](#)) daukagu. Bertan Eskola Kirola zer den azaltzen dugu, dituen ezaugarriak eta helburuak, eta etapa eta ibilbide ezberdinetan proposatzen diren jarduerak.

Zirimara familian (0-5 urte), Zirimara (L.H.1-4), Zirimara multikirola (L.H.5-6) eta esku pelotako eskaintzak urriak 2tik aurrera hasiko dira.



ZIRIMARA MULTIKIROLA (LH5-6)

Irailaren 29an 16:45etan ikastolako jangelan bilera informatibo bat egingo da gurasoentzat.

EGUERDIKO ESKAINTZA BERRIAK:

- Dantza modernoa: L.H. 3-tik aurrera BAMBOO DANCE SCHOOL-ekoen eskutik dantza modernoa eskainiko dute. Estilo berriak ere lantzen dituzte, hauek ezagutzeko eta aniztasunak denborarekin estilo propioa garatzen laguntzen duelako. Beraien eskaintza zati koreografiko batean oinarritzen da, pausoak errepikapenari esker barneratzen laguntzen baitu eta sormena eta introspektzioa sustatzen dituen inprobisazio lan batean. Saioak 12:30etik 13:30era izango dira ikastolako Agerialde eraikinean. Izena emateko hemen duzue [linka](#), irailaren 22tik 29ra izango da horretarako epea.
- Antzerkia: Asteartetan Ixabel Agirresarobek 12:30etik 13:30era antzerkia eskainiko du. Interesatuak jarri harremanetan e-mail honetan: ixabel.agresarobe@gmail.com

Zumetaren muralaren 50. urteurrena

Udarregi Ikastolako ikasleak, Aginagako eta Zubietako Eskola Txikietako ikasleekin batera, "Xumetik" Herri Jaialdiaren antolaketan ari dira parte hartzen. Usurbilgo Kulturgunek sustatuta, jaialdiko apaingarri izango diren eskulanak egingo dituzte herriko ikasleek. Modu horretan, hezkuntza-komunitatearekin elkarlanean, herriko ondare kulturalaren gaineko ezagutza partekatuko da belaunaldi gazteenekin.

Ospakizunak bi eguneko egitaraua du, eta arte diziplina ugari gurutzatuko dira, hainbat ekimenetan. [Jaialdiari buruzko xehetasun gehiago...](#)



Dena den, mezu honen bidez, irailaren 23an, larunbat goizean, herriko sortzaileekin batera burutuko diren tailerretara gonbidatu nahi zaituztegu. 11:00-13:30 bitartean, bost tailer desberdinetan parte hartzeko aukera egongo da. Haurrak, gazteak, helduak, adinekoak... herritar oro jarri nahi dugu eskulanetan. Animatu!

HAUR HEZKUNTZA

Haur Eskolako haurren hutsegiteak

0 eta 3 urte bitarteko haurrak haur eskolara etortzen ez direnean, mesedez, ikastolako idazkaritzan jakinarazi, ahal bada, 9:30 aurretik usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz.



Baso-eskola

Guraso bileretan aipatu bezala, urrian hasiko gara baso eskolako saioekin. Lehenengo saioak **urriak 4 (HH5 urtekoak)** eta **urriak 5 (HH4 urtekoak)** egingo ditugu.

HH4koak OSTEGUN goizetan joango dira.

HH5ekoak ASTEAZKEN goizetan joango dira.

Baso eskolako arropak datorren astean zehar banatuko dituzte tutoreek. Edozein zalantza izanez gero, galdetu lasai!!



Zorriak HH5

HH 5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

Baso-eskola

Baso eskolako eremuaren garbiketa egiteko deialdia gaurko egina bazegoen ere, euria emanda dagoenez, **bertan behera** uzten da eta datorren ostiral arratsaldera atzeratuko da. Hau da, **irailaren 29an Mahaspildegiko aparkalekuan 16:45ean**.



Guraso-bilerak

Bilera orokorretako datak jakinarazi nahi dizkizuegu:

Irailak 25: **LH 3. [Ikus txostena](#)**

Irailak 26: **LH 6. [Ikus txostena](#)**

Irailak 27: **LH 2. [Ikus txostena](#)**

Irailak 28: **LH 5. [Ikus txostena](#)**

Bilerak, 2. solairuan egingo ditugu, **16:45ean**.

Ez da zaintza zerbitzurik egongo.



Irteerak

❖ LH 3-4

Irailak 27, asteazkena, **LH 3 eta LH4ko ikasleek** egun osoko irteera egingo dute.

Goizean Zinemaldira joango dira, Ikastetxeak Belodromoan sailean emango duten filma ikustera.

Zinemalditik atera ondoren, bazkaldu eta arratsaldean Txuri Urdineko izotz pista joango dira.

Ezinbestekoa izango da eskularruak eramatea. Kontutan hartu ezazue, barruan hotza egiten duela. Bidal itzazue haurrak arropa egokiarekin. Aldatzeko arropa eramatea gomendatzen da.



❖ LH 1-2

Irailak 27, asteazkena, LH1 eta LH2ko ikasleak goizez, Donostiako Zinemaldiarekin bat eginez, Sutegira joango dira pelikula bat ikustera.

BIGARREN HEZKUNTZA

Guraso-bilerak

Bilera orokorretako datak honako hauek izango dira:

Urriak 2: **DBH 2 eta DBH 3**

Urriak 3: **DBH 4**

Urriak 4: **DBH 1**

Bilerak, DBH-ko eraikin gorrian egingo ditugu, **17:00etan**. Bilerak euskaraz egingo dira. Inork itzulpenik beharko balu, TELEGRAM aplikazioa instalatuta ekarri beharko du mugikorrean, aurikularrekin batera.

